



ZERGA INFORMAZIOAREN BABESERAKO ERABILTZAILEAREN KONPROMISOA

ERABILTZAILE BERRIEN DATUAK

NA (*)	Abizenak eta izena (*)
Organismoa (*)	Atala
Kargua (*)	
Formulario honen aurkezte agiria jasotzeko posta elektronikoa (*) : <input type="text"/>	

ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK

Zure organismoari informazioa emateko onartu den Hitzarmen edo Ebazpenaren baitan, Foru Ogasun honek duen Gipuzkoako hiritarren zerga alorreko informazioa sarbidea emango zaizu.

Zerga araudiak datu horiek babesten ditu, eta pertsona fisikoei buruzkoak diren neurrian, datu pertsonalak babesteko araudiak ere bai.

Hori horrela, **erabiltzaile berria** zaren aldetik:

- Utzitako datuak, babespekoak diren neurrian, erabateko isilpean eduki behar dituzu, isilpekoak baitira. Horrenbestez, beharrezko segurtasun neurri guztiak hartu behar dituzu, informazio hori baimenik gabeko inork ikus ez dezan.
- Sartzeko duzun baimena eta baimen horri esker lortzen duzun informazioa egoki erabili behar dituzu, hau da, onartutako hitzarmen edo ebazpenean agertutako helburuetarako eta zure ardurapeko espedienteen kudeaketarako soilik.
- Sartzeko bitartekoak (sinadura elektronikoen ziurtagiri digitala + PIN kodea / sarrerako pasahitza) guztiz pertsonalak dira, norberak bakarrik erabiltzekoak, eta ezin dizkiozu inoiz beste inori utzi. Zu zeu zara bitarteko horien erantzulea, zeuri dagokizu zaindu eta gordetzea, eta zeuri egotziko zaizu horiek erabilia egindako guztia.
- Horiek guztiak ez betetzeak, batez ere, isilpean gordetzeko eginbeharra ez betetzeak, erantzukizun penala, administratiboa edota zibila ekar lezake berekin, eta halaber, zure sartzeko baimena berehala indargabetuko da horren ondorioz.

ERABILTZAILEAREN KONPROMISOA (*)

Aurreko atalean agertzen diren betebeharrak guztiak onartzen ditut.

DEPARTAMENTUA	OGASUNA ETA FINANTZAK
ZERBITZUA	ZERGA ARLOKO ERALDAKETA TEKNOLOGIKOKO ZERBITZUA

Á
Á
Á
Á